

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

42/2024 Mozioa, apirilaren 15ekoa, Abiadura Handiko Trenak (AHT) Arabako Erriberabeitia udalerrian izango duen ibilbidearekin desadostasuna adierazteko, eta Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzeko konponbide alternatiboak bila ditzatela

Arabako Batzar Nagusi hauetako Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Batzordeak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

42/2024 Mozioa, apirilaren 15ekoa, Abiadura Handiko Trenak (AHT) Arabako Erriberabeitia udalerrian izango duen ibilbidearekin desadostasuna adierazteko, eta Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzeko konponbide alternatiboak bila ditzatela.

1. Arabako Batzar Nagusiek adierazi dute ez daudela ados AHTaren trazadurarekin eta Miranda de Ebrorekiko loturarekin, Burgos-Vitoria-Gasteiz linean, Erriberabeitiko udalerrian. Trazadura horrek eragin handia eta neurrigabea izango du udalerrientzat eta kontzejuentzat ingurumenari, ikusmenari eta akustikari dagokienez.

2. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako gobernuari inpaktu hori minimizatuko duten konponbide alternatiboak bilatzeko eskatu diete.

3. Mozio honen berri Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari emango zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 15a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA